

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea COVID-19ak osorik edo zati batean kaltetutako enpresa jarduera duten lokalei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileei**

Espedienteari alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu ez zaionez, argitaratu egiten dira onetsitako oinarriak.

#### **COVID-19AK OSORIK EDO ZATI BATEAN KALTETUTAKO ENPRESA JARDUERA DUTEN LOKALEI EZOHICO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK**

##### **1. artikulua. Oinarriak**

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen artikuluan udal guztiei esleitzen zaizkien eskumenetako bat da tokiko ekonomia eta gizarte garapena.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak beharrezkotzat jotzen du, 2020ko martxoaz geroztik osasun publikoaren aurkako kalteak arintzeko agindutako itxituren ondorioz, itxiera osoak edo partzialak izan dituzten zenbait jarduerari laguntza ekonomikoa ematea.

Ondorioz, oinarri hauen helburua da laguntzen eskabidea egiteko baldintzak ezartzea eta, hala badagokio, aipatutako dirulaguntza ematea.

##### **2. artikulua. Xedea eta helburua**

Oinarri hauen helburua da COVID-19ren aurkako neurrien ondorioz bereziki kaltetutako sektore batzuk babestea eta haiei laguntza ekonomikoa ematea, lehia soil bidez emango diren ezohiko laguntzetarako baldintzak arautuz.

##### **3. artikulua. Araubide juridikoa**

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzek, oinarri hauez gainera, ondoko arau hauetan xedatutakoari jarraituko diote:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.
  - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearenarena.
  - 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena.
  - 887/2016 Errege Dekretua, uztailaren 21eko, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Araudia onartzen duena.
  - Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
  - Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak Arautzen Dituen Ordenantza Orokorra.
2. Dirulaguntzak norgehiagokaz bestelako araubidean emango dira, deialdi ireki baten bidez, aurrekontuko kreditua agortu arte. Dirulaguntzak printzipio hauen arabera emango dira:
- Publizitatea, gardentasuna, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
  - Ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
  - Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

3. Dirulaguntza eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak ezagutzen eta onartu egiten dituela oinarri hauek, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantza orokorra eta azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzen orokorra, eta baita horrelako dirulaguntzei aplikatu beharreko arau guztiak ere, bai zuzenekoak, bai subsidiarioak.

#### **4. artikulua. Aurrekontu zuzkidura**

Aurrekontu esleipena nahikoa dago, 2021eko ekitaldian, 439.471.000 partidan. Ezin izango da dirulaguntzarik eman dagokion aurrekontu esleipena egin gabe.

#### **5. artikulua. Onuradunak**

Oinarri hauetan xedatutako dirulaguntza jaso ahal izango dute Arratzua-Ubarrundiako udalerriko lokal edo eraikin batean jarduera hauetakoren bat egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak:

- Ostalaritza.
- Kirol hobekuntzarako eskola eta zerbitzuak.
- Biltzarrak, batzarrak eta antzekoak antolatzeko zerbitzuak.

#### **6. artikulua. Eskatzaileen betekizunak**

Deialdi honen xedearekin zerikusia duen merkataritza jardueraren bat egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte, 671, 672, 967 eta 989 epigrafeetan.

2. Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Betekizun horrek gertatu beharko du eskabidea aurkezten den unean, eta indarrean egon beharko du dirulaguntza eskaeraren izapidetze prozesu osoan (dirulaguntza ematea, betebeharra aitortzea eta ordaintzea).

3. Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik ez izatea edo horrelako legezko debekurik ez izatea.

#### **7. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

2020ko ekitaldian zabor tasa dela-eta eskatzaileak ordaindutako zenbatekoaren ehuneko 100ari dagokion dirulaguntza emango da.

#### **8. artikulua. Eskaerak**

1. Eskaerak I. eranskinen eredu ofizialarekin bat etorriko dira, eta idazkera larri argi eta irakurgarri bete beharko dira.

2. Aurkezteko epea: deialdian agertzen den data.

3. Aurkezteko modua:

- Aurrez aurre udal bulegoetan, jendea hartzeko orduetan (8-14).
- Telematikoki, udalaren egoitza elektronikoaren bidez: [www.arratzua-ubarrundia.eus](http://www.arratzua-ubarrundia.eus).

4. Dirulaguntza emateko eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak:

– Normalizatutako dirulaguntza eskaera, behar bezala beteta, I. eranskinen ereduaren arabera.

– Ordainketa zein kontu zenbakitan egitea nahi duzun.

5. Eskatzaileek, eskaera aurkeztean, onartzen dute datuak udaleko dirubilketako zerbitzuekin erkatzea, zor guztien ordainketan egunean dauden jakiteko.

**9. artikulua. Eskaerak aztertzea eta ebaztea**

1. Aurkeztutako agiriak osorik ez badaude, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari horiek denak osatzeko. Gainera, ohartaraziko zaio ezen, epe hori igarota aurkeztu ez baditu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, betiere dagokion ebazpena eman ondoren.

2. Dirulaguntzak udalbatzak emango ditu, osoko bilkuran jorratu beharreko gaien informazio batzordeak proposatuta.

**10. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Dirulaguntza hauek ematea bateragarria izango da entitate eskatzaileak helburu bererako jasotzen duen beste edozeinekin.

**11. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea**

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, ebazpena emandakoan eta aurrekontu ekitaldia amaitu baino lehen.

**12. artikulua. Dirulaguntzen kontrola eta justifikazioa**

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan 7. apartatua xedatutakoarekin, dirulaguntza lortzeko baldintzak betetzen direla baino ez da egiaztatu beharke dirulaguntza hori eskuratzeko.

Laguntzen jasotzaileei aplikatu beharreko itzulketak, zehapenak eta erantzukizunak arautzen dituen araubidea azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, eta Arratzua-Ubarundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak ezartzen dutena izango da.

**13. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen araubidea**

Arau hauste eta zehapen administratiboei dagokienez, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorrak) 52. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari eta udalak onetsitako dirulaguntzen eta laguntzen emakida arautzeko ordenantzak 14. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaie. Halaber, ordenantza horren 15. artikuluan agintzen denaren arabera zehatuko dira.

**14. artikulua. Legeria osagarria**

Oinarri hauek xedatzen ez dituzten alderdiak, udalak onartutako dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzeko ordenantzan xedatutakoek eta Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta hori garatzen duen araudiak arautuko dituzte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Dura, 2021eko abuztuaren 4a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*

## I. ERANSKINA

## ESKAERA, COVID-19AK OSORIK EDO ZATI BATEAN KALTETUTAKO ENPRESA JARDUERA DUTEN LOKALEI EZOHICO DIRULAGUNTZAK EMATEKO

<b>IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA</b>		<b>NAN-AIZ-IFZ</b>	
<b>ORDEZKARIA (IZEN-ABIZENAK)</b>		<b>NAN-AIZ-IFZ</b>	
<b>OHARTARAZPEN-JAKINARAZPENETARAKO DATUAK</b>			
Kalea	zk.	Solairua	Herria
Posta kodea	Udalerrria	Probintzia	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikor zk.	

Jakinarazi  interesduna  ordezkaria  
 Jakinarazi  posta bidez  linean

<b>ADIERAZTEN DU</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- COVID-19k osorik edo zati batean eragindako enpresa-jarduera duten lokalei ezohiko dirulaguntzak emateko deialdiaren jakinaren gainean dagoela.</li> <li>- Deialdian zerrendatutako arteko jarduera baten titularrak dela udalerrian.</li> <li>- Udalarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.</li> <li>- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik ez duela edo horrelako legezko debekurik ez duela.</li> </ul>
<b>ESKATZEN DU</b>
Deialdi hori ebaztean kontuan har dakiola eta, hala badagokio, dagokion dirulaguntza eman dakiola.
<b>AURKEZTUTAKO AGIRIAK</b>
<input type="checkbox"/> Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANA eta titularrak, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.
<b>DATA ETA IZENPEA:</b>

DATUEN BABESA	
<i>Arduraduna</i>	Arratzua-Ubarrundiako Udala
<i>Xedea</i>	Dirulaguntzen deialdia, zenbait jarduera sustatzeko
<i>Legitimizazioa</i>	Datuen tratamendua legezko betebeharraren eta/edo interesdunen baimenaren bidez geratzen da legitimatuta
<i>Hartzaileak</i>	Bildutako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da lagapen gehiagorik egongo, legez derrigorrezkoa izan ezean
<i>Eskubideak</i>	Interesdunak bere eskubideak erabili ahaliko ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalaren aurrean, arduradun gisa, hemen: Uribea kalea, 12, 01520, Dura. Datuak legez aginduta gordeko dira, haien xedearen arabera. Datuak ez dira erabili erabaki automatizatuak egiteko.

Arratzua-Ubarrundiako Udala. Helbidea: Uribea kalea 12, 01520, Dura (Araba)